



Igandea da egun handia: 1 Formulako denboraldia hasiko da, Bahreineko Sari Nagusiarekin, hain zuzen ere. Aurtengo txapelketa berritasun askorekin dator, talde gehiago, gidari berriak, lehiaketako araudiaren aldaketak, labur esanda, ikuskizun handiagoa.

Kiroljokoak ere berea emango du 1 Formula girotzeko, zaletuei apustu egiteko aukera eskainiz. Mundialeko Sari Nagusi bakoitza Kiroljokoan gertutik bizi ahal izango da, aldez aurreko eta, bereziki, zuzeneko apustuen bitartez.

Nor izango da irabazlea? Zein postuan sailkatuko dira gidari nagusiak? Zein izango da lehenengo eta bigarren sailkatuaren arteko segundu aldea? Honako hauek dira Sari Nagusi bakoitzean egin daitezkeen iragarpen batzuk, eta gainera, dagoeneko prest daude Mundialeko irabazlearen apustuak. Fernando Alonso da faborito nagusia Kiroljokoan, Hamilton, Vettel eta Schumacherrek jarraituta. Iragarpenak beteko al dira?

Hona hemen EAE-ko Kiroljokoa Apustu-etxe, Kobratze Gune eta tabernatan aurkitu daitezkeen apustuen adibide txiki bat (ikusi kokapenak www.kiroljokoa.com webgunean):

Bahrein Sari Nagusia - Irabazlea

| GIDARIA | KUOTA | GIDARIA | KUOTA |
|---------------|-------|---------------|-------|
| F. Alonso | 3,10 | L. Hamilton | 5,10 |
| S. Vettel | 5,20 | F. Massa | 8,00 |
| M. Schumacher | 8,00 | M. Schumacher | 12,00 |

Bahrein Sari Nagusia - Aurrez aurre

| GIDARIA | KUOTA | GIDARIA | KUOTA |
|-------------|-------|-----------|-------|
| L. Hamilton | 2,20 | F. Alonso | 1,55 |
| F. Alonso | 1,55 | S. Vettel | 2,15 |

Bahrein SN - 1. eta 2.aren arteko segundu aldea

SEGUNDUAK KUOTA SEGUNDUAK KUOTA

| | | | |
|--------|------|--------|------|
| 0-1 | 5,20 | 1.01-3 | 4,60 |
| 3.01-5 | 4,60 | 5.01-7 | 4,10 |

Mundiala - Irabazlea

| GIDARIA | KUOTA | GIDARIA | KUOTA |
|-----------|-------|---------------|-------|
| F. Alonso | 3,00 | L. Hamilton | 5,00 |
| S. Vettel | 5,00 | M. Schumacher | 6,00 |
| F. Massa | 10,00 | J. Button | 12,00 |

Oharra: Kuotak aldatu egin daitezke. Gehienezko apustua 100 eurokoa da.

KIROLJOKOA, MOTORREKO KATALOGORIK ZABALENA

Kiroljokoak motorraren aldeko apustua egiten du, izan ere, 1 Formula, Motoziklismoa eta hainbat froga internazionalak eskaintzeaz gain, jarraipen berezia egiten dio Euskal Herriko Rally, Rallysprint eta Igoerei. Horrela, Kiroljokoak apustuaren bidez zaletuei lasterketak gertutik bizitzeko aukera ematen die.



KIROLJOKOA KIROLAREKIN BAT

Kiroljokoak motorraren alde egiten duen apustua hainbat talderekin egindako babesletza akordioetan nabarmentzen da, hala nola, Lagun Artea, Escuderia Eibar, Durangalde Racing eta Bergara Racing. Laguntza hau **Kiroljokoa kirolarekin bat** proiektuan kokatzen da. Ekimen

honen bitartez, Kiroljokoak bere aktibitatea kirol talde eta ekitaldien laguntzan eta sustapenean itzultzea nahi du. Horretarako, honako hiru eremu hauetan babesletza ekintzak lantzen ditu: bertako kirola, kirol egokitua eta emakumezkoen kirola.

BABESTUTAKO TALDEAK:



Binakako Txapelketaren finalerdietako bigarren jardunaldia emozio handiz biziko da, joan zen astean izandako sorpresen ostean. Larunbatean Martinez de Irujo-Beroiz eta Titín III-Pascual aurrez aurre egongo dira Labriten. Bikote biak faborito bezala iritsi ziren finalerdietara baina bere partiduak galdu zituzten Gonzalez-Laskurain eta Xala-Zubietaren aurka, hurrenez-hurren. Azken bikote hauek elkarren kontra arituko dira igandean Astelenan.

Kiroljokoa apustuetan Martinez de Irujo-Beroiz eta Xala-Zubieta dira bikote faboritoak jardunaldi honetarako. Sorpresak egongo al dira ala faboritoek irabaziko dute?

Hona hemen EAE-ko Kiroljokoa Apustu-etxe, Kobratze Gune eta tabernatan aurkitu daitezkeen apustuen adibide txiki bat (ikusi kokapenak www.kiroljokoa.com webgunean):

2010/03/13-14

| PARTIDUA | KUOTA |
|------------------------|-------|
| Mtz. de Irujo - Beroiz | 1,45 |
| vs. | |
| Titin III - Pascual | 3,00 |
| Gonzalez - Laskurain | 2,,05 |
| vs. | |
| Xala - Zubieta | 1,70 |

Binakako txapelketaren irabazlea

| BIKOTEA | KUOTA | BIKOTEA | KUOTA |
|---------------|-------|-------------|-------|
| Mtz. de Irujo | 1,80 | Titin III - | 3,00 |
| - Beroiz | | Pascual | |
| Xala - | 4,50 | Gonzalez - | 7,00 |
| Zubieta | | Laskurain | |

Oharra: Kuotak aldatu egin daitezke. Gehienezko apustua 100 eurokoa da.

KIROLJOKOA, PILOTA KATALOGORIK ZABALENA

Kiroljokoak pilotaren aldeko apustua egiten du, txapelketa eta jaialdi nabarienetako apustuak eskainiz, ez bakarrik eskupilotan, baizik eta palan, erremontean eta zesta-puntan ere. Horrela, adibidez, Kiroljokoan honako hauetan apustu egin daiteke: palako Gipuzkoako Herri-arteko Txapelketan eta Munduko Binakako Txapelketan.



Informazio gehiago:

Maribel San José
msanjose@kiroljokoa.com
TEL: 688 881 709